



NAFARROAREN EGUNEKO KONTZERTUA
2015EKO ABENDUAREN 3A

Iruñeko Orfeoia

Zuzendaria: Igor Ijurra | Pianista: Diana Yerro



NAFARROAREN EGUNEKO KONTZERTUA
2015EKO ABENDUAREN 3A

Iruñeko Orfeoia

Zuzendaria: Igor Ijurra | Pianista: Diana Yerro

I. ZATIA

IRUÑEKO ORFEOIA

LORENZO ONDARRA (1931-2012)

Set cançons populars catalanes

HAUTAERA: *Cançó màgica -*

La mort del porc - Mariagneta

IGNACIO BUSCA DE

SAGASTIZABAL (1868-1950)

Sagarraren

KOLDO PASTOR (1947)

Lau euskal doinu

Koru, bakarlari eta pianoarentzat

HAUTAERA: *Ala baita - Alabatua -*

Aritz Adarrean

SOPRANO: María Echeverría

TENORE: Javier Arizmendi

RAIMUNDO LANAS (1908-1939)

TOMÁS ASIAIN (1923-1989) ^{MOLD.}

Navarra mía

TENORE: Joseba Garde

II. ZATIA

IRUÑEKO ORFEOIA ETA ORFEOIKIDE IZANAK

NAFARROAKO HIMNOA

Erreinuaren sarrerarako martxa

HILARIÓN ESLAVA (1807-1878)

Jesu dulcis memoria

FERNANDO REMACHA (1898-1984) ^{MOLD.}

Gatzelako bost kanta

De colores se visten los campos -

Arroró, mi niño chico (SOPRANO: Nerea Castellet)

- Dices que no me

quieres - Majo, si vas a los toros -

Qué contenta está la novia

J. JUAN SANTESTEBAN (1809-1884)

Ume eder bat

BARITONO: Pablo Azpeitia

CARL ORFF (1895-1982)

Odi et amo (*Catulli Carmina*)

JOSÉ ANTONIO HUARTE (1937) ^{MOLD.}

Goizeko izarra

EDUARDO MOKOROA (1867-1959)

J. A. HUARTE ^{MOLD.}

Ilunabarra

AITA DONOSTIA (1886-1956) ^{MOLD.}

Iru txito

JOAQUÍN LARREGA (1865-1945)

Navarra siempre p'a adelante

TENORE: José María Pérez Yoldi

BARITONO: Silvano Baztán Guindo

PROGRAMARAKO OHARRAK

Aurtengo abendu honetan gailur ematen zaio Iruñeko Orfeoia sortzearen 150. urteurrenari, eta gaurko kontzertua hiru arrazoiengatik berezia da: Nafarroaren Eguna ospatzeko kutur programazioan txertazen delako, alde batetik, gaurkoan Joaquín Larregla pianista eta konpositore Irunberritarra bereziki oroitu nahi dugulako, eta, azkenik Iruñeko Orfeoiko kide izan direnei omenaldi bat eskaini nahi diegulako, gaur egungo Orfeoia azken 150 urteetan abeslari izan direnen lanari esker ere lortu baita.

Gaurko emanaldiaren lehen zatian Iruñeko Orfeoia abestuko du eta bigarrenean Orfeoia eta zenbait orfeoikide ohi elkartuko dira —Igor Ijurraren zuzendari-tzapean— honako irizpide hauekin eginiko egitarau bat eskaintzeko: nafar konpositoreen lanak gehienbat, Nafarroarekin zerikusia duten gaiak jorratzen dituztenak edo geure herri doinuak oinarritzat dituztenak.

Carl Orff da atzeritar konpositore bakarra. Beste gainerakoak Iruñeko Orfeoiarekin harreman berezia izan zuten edo dute: B. de Sagastizabalek Orfeoia zenbait lan eskeini zizkion, Eduardo Mokoroa Tolosarra Remigio Mugicaren lagun mina zen, Joaquín Larreglak ere zenbait lan eskeini zizkion Orfeoia, Hilarión Eslavak laguntza berezia eman zion hastapeneko Orfeoia; Jose Antonio Huarte eta Koldo Pastor zuzendariak izan dira; Ondarraren lan ugari mustu ditu Orfeoia azken 10 urteetan...

Gaur entzungo ditugun abestiei dagokionez, *Navarra siempre p'a alante* eta *Iru txito*, adibidez, 1899tik eta 1915etik errepertorioan daude. Lehenengoa Orfeoia mustu zuen. Garai jakin bateko ume dira zenbait abesti



eta beharbada haien hitzak zaharkituak daude baina Orfeoiaren historia dira.

Iruñeko Orfeoian emakumezkoak 1903an sartu ziren. Ordurarte gizonezko korua izan zen eta garaiko errepertorioko *Ume Eder bat* abesti ezaguna eskainiko dugu. 1896an, hil eta hilabete batzuk beranduago, Felipe Gorriti Uharte Arakildarrari bere herrian egindako omenaldian abestu zen.

Beraz, abesti guzti horiek esanahi berezi bat dute Iruñeko Orfeoiaren 150 urteetako ibilbidean.

Orfeoiak Nafarroako konpositoreen lanak mustutzea eta abestea du helburu. Horren lekuko Lorenzo Ondarraren *Set cançons populars catalanes* eta Koldo Pastorrren *Lau euskal doinu* dira. Obra horien aukeraketa bat eskeini du Orfeoiak azaroaren 29an Bartzelonako Palau de la Música Catalana areto ospetsuan eta gaurkoan lehenengo aldiz entzungo dira geure herrialdean.

Horiekin batera, Orfeoiko erreperertorian duela ia mende bat dagoen abestia: *Sagarraren*, 1929an Bartzelonon grabaturikoa. Eta azkenik, Orfeoiarekin harremana izan zuen Raimundo Lanas jotero handiaren *Navarra mía*, Asiain tuterarrak moldatu zuena.

Jai egun honen bukaera atsegin bat izan dezazuela ❖

IGOR IJURRA
IRUÑEKO ORFEOIKO ZUZENDARIA